



euskal
jaiak

ordizia
2 0 2 4

LEHIAKETEN
OINARRI-
ARAUAK

2024-09-11



FRUITU ETA BARAZKI LEHIAKETA-ERAKUSKETA

Lehiaketen oinarri-arauak

Lehiaketa-erakusketan parte hartzeko gonbidapena jaso beharko da.

Lehiaketa-erakusketa Joxe Migel Barandiaran Plazan egingo da; Udala arduratuko da behar diren mahai eta saltokiak jartzeaz.

Goizeko 7etarako produktuak jartzen hasteko moduan izango dira ekoizleak, kontutan izanik, 8:30etarako dena jarrita egon beharko dela.

Epaimehaikoek epaia eman arte (9:30 aldera) ezingo da salmentarekin hasi eta 14:00etatik aurrera has daiteke saltokia jasotzen.

Bakarrik norberak ekoiztutako produktuak erakutsi daitezke. Beharrezkoa balitz, hori egiaztatu egingo da eta baldintza betetzen ez bada, jasotako guztia itzuli egin beharko du partaideak eta urtebetean ezin izango du berriro parte hartu.

Saltokiek bete beharreko baldintzak:

- Barazkiak: gutxienez 8 mota edota barietate desberdin aurkeztu beharko dira; bakoitzetik 4 kilo edo 4 dozena gutxienez, saltzeko eraren arabera.
- Fruituak: gutxienez 8 mota edota barietate desberdin ekarri beharko dira; bakoitzetik 4 kilo gutxienez.

• Sariak ematerakoan kontutan hartuko direnak:

Kalitatea: osasun-egoera, heldutasuna, salmentarako neurri egokia izatea...

Kopurua: aurkezten diren mota eta barietateak.

Aurkezpena: produktu bakoitzak bere izena eramatea, erabiltzen diren osagarriak, saltokiaren itxura orokorra...

Fruitu eta barazki atal bakoitzean, honako sariak emango dira:

• Fruituak

1. saria: 500 €

2. saria: 400 €

3. saria: 300 €

• Barazkiak

1. saria: 500 €

2. saria: 400 €

3. saria: 300 €

Horrez gain, partaide guztiei 30 € / metro karratuko emango zaie, dieta gisa.

Sariak Joxe Migel Barandiaran Plazan emango dira, eguerdiko 12:00etan.

EUSKAL OILOAREN XLI . ERAKUSLEHIAKETA

FERNANDO OROZKO XIX. MEMORIALA

1.-Euskal Arrazako oilar eta oiloak parte har dezakete lehiaketan. EUSKAL OILOAREN bost barietate daude: MARRADUNA, GORRIA, BELTZA, ZILARRA ETA LEPASOILA.

2.-Lote bakoitzean OILO BAT eta OILAR BAT ekarriko dira.

3.-Ez da onartuko 2 lote baino gehiago pertsona bakoitzeko eta ez da onartuko 10 lote baino gehiago ustiategi bakoitzeko.

4.-Hegaztiak OSASUNTU eta GARBI ekarri beharko dira.

5.-Hegaztiak gutxienez 5 hilabeteko adina izan beharko dute, bestela deskalifikatuak izango dira.

6.-Euskal Oiloaren gutxienezko standarrak betetzen ez dituzten hegaztiak deskalifikatuak izango dira.

7.-Hegaztiak goizeko 8:00ak baino lehen ekarri beharko dira, eta arratsaldeko 14:00etatik aurrera eraman daitezke. Hegaztiak ikusgai jarri ahal izateko lote bakoitzaren titularrak bere NAN aurkeztuko beharko du.

8.-Lehiaketan parte hartzeko deitu 943882290 telefonora, irailaren 6ra arte, astelehenetik ostiralera eta goizeko 10:00etatik 13:00ak arte.

9.-Lehiaketa Joxe Migel Barandiaran Plaza egingo da.

10.-Behin epaileek emaitzen berri ematen dutenean, hegaztiak saldu daitezke, baina ezingo dira esandako ordua baino lehen kendu.

11.-Lehiaketan parte hartu ahal izateko, goian adierazitako puntuak bete beharko dira.

SARIAK:

Sailik onenarentzat: 210€

Bigarrenarentzat: 150€

"BELTZA" motako hegazti onenarentzat: 100€

"GORRIA" motako hegazti onenarentzat: 100€

"LEPASOILA" motako hegazti onenarentzat: 100€

"MARRADUNA" motako hegazti onenarentzat: 100€

"ZILARRA" motako hegazti onenarentzat: 100€

Sariak derrigorrez saritutako loteen titularrak jaso beharko dituzte. 25 euroko dieta ordainduko da aurkeztutako lote bakoitzeko, titularrak aurkeztutako kontu korrontean.

Deskalifikatutako hegaztiak ez dute loteko 25€ kobratuko.

GIPUZKOAKO PIRENAIKA ARRAZAKO GANADU TXAPELKETA

PIRENAIKA arrazako ganadu lehiaketa izango da Ordiziakoa. Ez da beste arrazarik onartuko. Ganaduzaleak, ordea, libre da Gipuzkoako edozein herritakoak izatea. Era berean, esan dezagun mota honetako lehiaketa bakarra izango dela Gipuzkoan.

Lehiaketaren asmoa pirenaika arrazari bultzada bat ematea da. Pirenaika arrazako ganadua, izan ere, oso ganadu egokia da haragitarako eta larrerako, eta oso erraz egokitzen da hemengo geografi-klimetara, ez baita alperrik hemen bertan, gure mendietan, sortutako ganadua.

Ordiziako Udalak gure inguruko gauzarik onenak herrira ekartzeko sentsibilitate handia izateari esker, gustura lagunduko du bertako PIRENAIKA ganadu arraza aurrera ateratzen. Izan ere, Foru Aldundiak, eta HEBEK ere beren partea baitute.

Gainera, urtero izango da Ordizian pirenaika arrazako ganadua kalitatea zenbat hobetu den ikusteko aukera, geroz eta hobe baina kalitatea ; batez ere etengabe ari delako genetika hobetzen Gipuzkoako Ganaduzaleen Elkarte (HEBE), Euskadiko Federakuntza (EPIFE) eta Konfederakuntza (CONASPI) lagun dituela.

Lehiaketan ganadua morfologiari begiratuko zaio, batez ere arrazaren berezitasunei. Epaimahaiak emango du sailkapena, eta ez da hark hartutako erabakirik aldatzerik izango.

8 lehenengo sari (garaikurra eta 100 €), 8 bigarrenengo (garaikurra eta 60 €) izango dira eta 8 hirugarren sari (40€ sariko), guztiak ere emeentzat. Hona hemen sailak:

1. saila: 8 eta 12 hilabete artekoak.
2. saila: 12 eta 18 hilabete artekoak.
3. saila: 18 eta 24 hilabete artekoak.
4. saila: 2 eta 3 urte artekoak.
5. saila: Umatutako 3 eta 5 urte artekoak.
6. saila: Umatutako 5 eta 7 urte artekoak.
7. saila: Umatutako 7 eta 9 urte artekoak.
8. saila: 9 urtetik gorakoak.

Intseminazio eme hoberenarentzat saria. (ABEREKINEN eskutik)

Abelburu hoberenarentzat saria (HEBE-ren eskutik).

Zezenak ere izango dira, baina ikusgai besterik ez.

Lehiaketan parte hartu nahi duenak, bestetik, goizeko 8ak baino lehen ekarri behar du ganadua.

Seguru da egunak arrakasta izatea; izan ere, 50 ganadu-buru inguru izango dira lehiaketan.